

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 30ekoa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2022/2 jardunbidea emateko dena, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren araberrako curriculum-proiektuak eguneratu eta aurkezteko, eta izapidetzeko erabiliko diren irizpideak izan ditzaten.

2015eko uztailaren 22ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Aginduaren 7. artikulua, Euskaltegien Curriculum Proiektuaz ari denean, eta, HEOCaren ezarpenerako, xedatzen du euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere curriculum-proiektua (ECPa) aurkeztu behar diola HABEren zuzendari nagusiari, curriculum-jarduerarekiko printzipioak eta irizpideak ezarriz, balio-aukerak azalduz eta xedeak zehaztuz.

Era berean, Agindu horren 7. artikuluan ezartzen da euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek bost urtetik behin, gutxienez, eguneratu beharko dutela curriculum-proiektua, ikasgeletan zein euskaltegietan nahiz euskararen autoikaskuntzarako zentroetan lortzen dituzten emaitzen baitan, prozesu horretan hizkuntzen ikas-irakaskuntzak eta teknologiak izan ditzaketen aurrerabidea euskaltegien nahiz euskararen autoikaskuntzarako zentroen errealitate eta ikasleen beharretara egokituz.

Halaber, 2020ko irailaren 9ko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautzen dituen Aginduaren 7. artikulua ezartzen du euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek beren curriculum-proiektuetan finkatuko dituztela ikasguetako helburuak erdiesteko egoki diren metodoak, jarraibideak, tresnak, ebaluazio-irizpide eta baliabideak eta, hala dagokionean, baita maila bakoitzarentzako kalifikazio-irizpideak ere.

Bestalde, 2018ko abenduaren 10eko Ebazpenean HABEren zuzendari nagusiak honako hau ebatzi zuen: "Euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek curriculum-proiektua eguneratzeko epea 2018ko urriaren 1etik aurrera kontatzen hastea eta, ondorioz, curriculum-proiektu eguneratua aurkezteko epea 2023ko irailaren 30a arte luzatzea".

Horrenbestez, Euskaltegi Curriculum Proiektua izapidetzeko jardunbidea eta jarraibideak zehazteko

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- 2022/2 jardunbidea onartzea eta jakinaraztea, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren 7. eta 8. artikuluetan xedaturiko Euskaltegi Curriculum Proiektua eguneratu eta aurkezteko, eta izapidetzeko irizpideak emateko, Ebazpen honen lehen eranskinean jasotzen den eran, baita HABEren zuzendari nagusiaren 2018ko abenduaren 10eko Ebazpenean ezarritako epea betetzeko ere.

Bigarrena.- 2023/24 ikasturtean zehar gauzatzea eta amaitzea euskaltegi bakoitzeko Curriculum Proiektua aurkeztu ondorengo izapidea eta lanketa.

Hirugarrena.- Ebazpen honen bigarren eranskinera biltzea ECPak izapidetzeko irakurketa-gida izango den dokumentua, "Euskaltegien Curriculum Proiektua (ECP). Irakurketa-gida 2023".

Laugarrena.- Ebazpen honen hirugarren eranskinera biltzea HABEko Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak ECPak ebaluatzeko oinarrizko tresna gisa erabiliko duen dokumentua, "Euskaltegien Curriculum Proiektua. Ebaluazio-txantiloia 2023".

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Bosgarrena.- Ebazpen honen laugarren eranskinera biltzea euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentroaren zuzendariak, euskaltegiko titularraren oniritziz, ECParekin batera igorriko duen idazki-eredua.

Seigarrena.- Interesdunei jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtoa jar daitekeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epearen barruan.

Donostian, 2022ko azaroaren 30ean

Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia

I. ERANSKINA

2022/2 JARDUNBIDEA, AZAROAREN 30EKOA, HABE-REN ZUZENDARI NAGUSIARENA, HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMAREN ARABERA EUSKALTEGIEN ETA EUSKARAREN AUTOIKASKUNTZARAKO ZENTROEK CURRICULUM-PROIEKTUAK EGUNERATU ETA AURKEZTEKO, ETA IZAPIDETZEKO IRIZPIDEAK EMATEKO DENA

1. oinarria.- Helburua.

Jardunbide honen xedea da 2015eko uztailaren 22ko Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Aginduaren 7. eta 8. artikuluetan xedaturiko Curriculum Proiektua eguneratu eta aurkezteko, eta izapidetzeko irizpideak ematea.

2. oinarria.- Ezarpen-eremua.

HABEk atxikita duen Euskallegien eta Euskararen Autoikaskuntzarako Zentroen Erregistroan inskribaturik daudenek osatzen dute jardunbide honen ezarpen-eremua.

3. oinarria.- Euskallegiaren Curriculum Proiektuaren arau-oinarriak.

ECParen edukiek gai honen inguruan indarrean dauden lege-xedapenak beteko dituzte, betiere:

- 2015eko uztailaren 22ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Aginduaren 7. artikulua, Euskallegiaren curriculum-proiektuaz ari dena.

- 2020ko irailaren 9ko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautzen dituen, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituen Aginduaren 7. artikulua xedatutakoa.

4. oinarria.- Berariaz diseinaturiko ECPa

2015eko uztailaren 22ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum ezartzen duen Aginduaren 7. eta 8. artikuluek xedatutakoaren arabera, euskallegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak berariaz osatu behar du HEOCak ezarritako gidaleroen garapenerako bere izari-ezaugarrien arabeko curriculum.

5. oinarria.- Euskallegiko Curriculum Proiektuaren irakurketa-gida.

Euskallegi bakoitzeko arduradunek eta HABEko Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloko teknikariek elkarlan egokia eta aberasgarria izan dezaten, erreferentziazko dokumentua izango dute Ebazpen honen bigarren eranskinera bildutako "Euskallegien Curriculum Proiektua (ECP). Irakurketa-gida 2023".

6. oinarria.- Prozedura.

HABEren Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloari dagokio ondorengo izapideak bideratzea, honako urrats hauei jarraikiz:

- Euskallegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentroko zuzendariak, euskallegiko titularraren oniritziz, HABEren zuzendari nagusiaren aurrean aurkeztu beharko du curriculum-proiektua, sinatu beharreko idazki-ereduekin batera.
- Ebazpen honen hirugarren eranskinera bildutako "Euskallegien Curriculum Proiektua. Ebaluazio-txantiloia 2023" izenburua daraman dokumentua izango da ECPak ebaluatzeko oinarrizko tresna.

- Euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek aurkeztutako ECPak aztertu ondoren, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak 2024ko urtarrilaren 30erako igorriko dizkie dagozkien txosten teknikoak.
- Hala balegokie, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloaren txostenean bildutako ohar nahiz jarraibideen arabera egokitzapenak egingo dituzte euskaltegiek edota euskararen autoikaskuntzarako zentroek, eta HABEn 2024ko martxoaren 15erako aurkeztuko dute eguneratutako ECParen azken bertsioa, modu egokian osatu ondoren, Euskaltegien eta Euskararen Autoikaskuntzarako Zentroen Erregistroan jaso ahal izan dadin.
- Euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek aurkeztutako ECP eguneratuen bigarren bertsioak aztertu ondoren, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak, gehienez ere, 15 lanegunetan bidaliko dizkie dagozkien txosten teknikoak, 2024ko martxoaren 15etik kontatzen hasita.
- Azkenik, HABEren Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak HABEren zuzendari nagusiari igorriko dion txosten teknikoan zehaztuko da aurkeztutako proiektuak HEOCean xedatutakoarekin edo aplikagarri zaien araudiarekin bat datozen.

7. oinarria.- Jardunbidearen amaiera.

Euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak igorritako curriculum-proiektua aztertu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak proiektua Euskaltegien eta Euskararen Autoikaskuntzarako Zentroen Erregistroan jasotzeko aginduko du Ebazpen bidez, proiektuak dagokion aldeko txostena jaso ondoren.

8. oinarria.- Prozeduraren jarraibideak.

Euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek, izaera juridikoa izanik, ECPak aurkezteko eta prozedura honetako izapide guztiak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren **Egoitza Elektronikoa eskuragarri dauden bitarteko elektronikoak** erabiliko dituzte, honako helbide honetan eskuragarri dagoen formularioaren bidez: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/12232>.

ECPa aurkeztu ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren **egoitza elektronikoko «nire karpeta»-ren** bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

II. ERANSKINA

EUSKALTEGIEN CURRICULUM PROIEKTUA (ECP)

Irakurketa-gida 2023

*STENHOUSEren arabera (1991, 29),
curriculum asmo didaktiko baten printzipioak eta funtsezko ezaugarriak komunikatzeko
egiten den ahalegina da,
eztabaida kritikoa sustatu eta praktikara eramateko.*

Donostian, 2022ko azaroaren 30ean

Aurkibidea

Sarrera	7
2018an onarturiko ECPen balorazioa	8
Legedia	9
Euskaltegiaren Curriculum Proiektua atalez atal:	12
ATARIKOA.- 2023ko ECPa eguneratzeko prozesua	13
1. Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bizi duen egoeraren eta bere inguru sozialaren beharren azterketa eta autoebaluazioa	14
2. Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bere egiten dituen hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusiak	15
3. HEOCak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta hurrenkerak, euskaltegi zein euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren eta ikasleen beharretara egokituz ..	16
4. HEOCa mailaka egokitzeko proposamena, baita maila nahiz azpimaila bakoitzeko aurreikusten den ordu-kopurua ere.....	17
5. Hobetsitako aukera metodologikoak.....	18
6. Lehenetsitako ikastereduak	19
7. Ikasmaterialen eta irakasmaterialen proposamena eta hauek aukeratzeko irizpideak ...	20
8. Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeko arribideak.....	21
Ebaluazio-irizpideak eta -eskala	22

Sarrera

Curriculum-proiektua egitea euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentroyen zeregin erabakigarrietako bat da. Izan ere, ikas-irakas prozesuaren arrakasta, neurri handi batean, lortu nahi diren helburuak aldeztatik zehaztearen arabera da, baita asmo pedagogikoaren plana aldiro-aldiro adostearen ondorio ere: zer ikasi behar duen ikasleak, zer hurrenkeratan, zertarako, nola eta zer baliabideren bidez. Osagai horiek guztiek osatzen dute curriculum-proiektua, metodologia-hautuen eta ebaluazio-irizpideen azalpenekin batera.

Euskaltegiaren Curriculum Proiektua HEOCaren hurrengo zehaztapen-maila izanik, laneko gidaliburu moduan ulertu behar da, euskara-irakasleari helburu, eduki, orientabide metodologiko eta ebaluazio-prozedurei buruzko informazioa ematen diona.

Helburuak lortzeko, euskaltegi eta irakasle bakoitzak makina bat erabaki hartu ohi ditu egunero, HEOCaren irizpideak euskaltegiaren ikasgela bakoitzean eta eskoletako praktikan aplikatzen. Azken batean, irakasleak dira ondorio didaktikoak sorrarazten dituztenak, irakasleak dira zer edo zer alda dezaketenak edota bere horretan utzi dena. Oinarrizko ekintzagune dira irakasleak, eta, beraz, edozein berrikuntzari ekiteko, funtsezkoa da irakaslea bakarka aritzetik lantaldean lan egitera igarotzea. Euskaltegiko irakasle-taldea izango da ekintza-unitatea: praktikaren analisia burutuz, irakaskuntzari buruzko hausnarketa bideratuz bakarka nahiz lantaldean eta, gero, erabakiak hartuz.

Horrela, bada, euskaltegiak eta irakasle-taldeak garapenerako ingurune gisa ulertu behar dira, xede izanik: a) lantalde bateko parte izatea eta ez isolaturik aritzea, b) elkarlanean jarduteko testuingurua eraikitzea —helburu komunak zehaztea, elkarri laguntzearen balioa izatea, parte hartzeko interesa edukitzea— eta c) arazoei irtenbideak topatzeko dinamika sustatzea. ECParen berritze-eguneratzeak bere osotasunean hartu behar du euskaltegia, eta, ildo horretatik, irakasle-taldeari dagokio euskaltegiko curriculum-proiektua egituratu, bideratu, ebaluatu eta berritzea, horrela bakarrik hobetu eta bideratuko baita aldaketa eta horrela bakarrik erantzungo baitzaie eraginkortasunez euskaltegiak dituen erronkei.

Euskaltegiak bere testuinguru eta ezaugarrietara doitu behar du HABEK 2015ean ezarritako Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (2015eko uztailaren 22ko Aginduaren 7. artikulua), eta irakasle-taldearen hausnarketaren bidez definitu zer irakatsi, zer hurrenkeratan, nola irakatsi eta nola ebaluatu. Era batera edo bestera, ikasguaren errealitatearen analisiak lagundu behar du era honetako proiektu bat bideratzen. Hasi liteke landuen dagoen puntutik edo informazio gehien dagoenetik; adibidez, aztertu litezke erabiltzen diren ebaluazio-irizpideak eta -tresnak, bakarka edo taldean, bai gogoeta egiteko, bai Administrazioak ezarritakoekin erkatzeko, baita erabakiak hartzeko ere. Edota, beste batzuetan, hasi liteke ohiko praktika didaktikoan atzemandako arazoetatik, esate baterako.

Curriculum-aldaketak aukera batzuen zergatiak edota zertarakoak birplanteatzen lagundu lezake, irizpide berritzaile batzuk orokortzen eta, era berean, senaren mailatik gogoetarenera edota inprobisaziotik ikerketara igarotzen. Programatzea ez da zerrendak egitea, ez da pilatzea, ez da osagaiak besterik gabe elkarren ondoan jartzea. Programatzea hierarkizatzea da, integratzea, segida ordenatu bat ezartzea. Erabakiak hartzea eskatzen du, arriskatzea. Lortu nahi diren helburuei tentuz erreparatu behar zaie, ikasleak sakon ezagutu behar dira, baita ikasle horiek ezagutza eraikitzeke dituzten moduak ere. Aurreikusi egin behar da zer edukirik, zer lan-proiektu, zer egoera komunikatibok, zer material- eta jarduera-motak lagunduko duten ikaskuntza jakin batzuk garatzen. Eta programatzeak, gainera, ebaluatzeke moduak zehaztea

eskatzen du; betiere, prozesuan eragiteko aukera izateko eta zorrotz diagnostikatzeko zer dabilen oker eta zer zuzendu/egokitu behar den.

Euskaltegiaren Curriculum Proiektua egiteko, ezinbestekoa da irakasleen arteko koordinazioa sustatzea. Koordinazioa aberastuz bakarrik hobetu liteke jardun profesionala eta eraldatzen joan errutina profesionala, zeren eta irakasleen arteko koordinazio egokirik gabe, nekez lortuko baita programazio baliagarriak.

2023ko Euskaltegiaren Curriculum Proiektuaren helburua da argi eta garbi azaltzea euskaltegi bakoitzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ardatz izango diren asmoak, orientabideak eta jardunbide didaktikoak. Ildo horretatik, ECPan jaso behar dira hizkuntza-irakaskuntzaren funtsezko kontzeptuen ondorio diren irakas-gomendioak.

2018an onartutako ECPen balorazioa

HABEren zuzendari nagusiak 2018ko abenduaren 10eko Ebazpen bidez onartu zituen euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentroek aurkeztutako curriculum-proiektuak.

Curriculumaren Garapena Arloak egindako euskaltegien curriculum-proiektuen irakurketan, besteak beste, honako balorazio orokor hau ondorioztatu zen:

- Era batera edo bestera, euskaltegi guztiek erantzun diote 2015eko Curriculum Aginduaren 7.2 puntuan ebatzitakoari.
- Kontzeptu-mailan, ez dago inkoherentziarik HEOCean adierazitakoaren eta curriculum-proiektuetan jasotakoaren artean.
- Saiakera berezia egin da euskaltegiek bizi duten egoera soziolinguistikoa azaleratzeko eta sumatzen diren premiak aurkezteko.

Baina:

- Euskaltegi batzuek, lehen atalari buruzko informazioa izan ezik (euskaltegia eta egoera soziolinguistikoa), curriculum-proiektu berdina aurkeztu dute.
- Curriculum-proiektu gutxitan aurki daiteke datuetan oinarritutako praktikaren gaineko informaziorik; hau da, euskaltegiak bizi duen curriculumaren errealizazioari buruzko daturik. Horrelakoetan, egiaztatze gintzari buruzkoak dira nagusi.
- HEOCak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta hurrenkerari buruzko atala bideratzean, kasurik gehienetan, oinarritzko curriculumean ageri dena eskaini da bere horretan.
- Bere osotasunean hartuta, ebaluazioaren atala izan da eremurik ahulena. Proposamen orokorrak ageri dira, zehaztapena eskatzen den lekuan.

Legedia

- AGINDUA, 2015eko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duena (7. artikulua).

7. artikulua.– Euskaltegiaren curriculum-proiektua.

1.– HEOC honek ezarritako gidalerroen garapenerako bere izari-ezaugarrien arabeko curriculum-proiektua osatu behar du euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak, une oro bertako jardunbideei norabidea eta koherentzia eskaintzeko, izan ikasgeletan, izan euskaltegian bertan. Horrela, euskaltegiari eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzari aitortzen zaion autonomia pedagogiko eta antolatzailearen barruan, irakasle-taldeari dagokio zehaztapen hau burutzea. Horretarako, euskaltegiak inguruko eragileek bizi duten egoera soziolinguistikoari erreparatuko dio, behar bezalako curriculum-egokiera egin dezan, betiere, ikasleen komunikagaitasuna abiapuntu hartuz.

2.– HEOCaren ezarpenerako, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere curriculum-proiektua aurkeztu behar dio HABEren zuzendari nagusiari, jarraian datozen gidalerroak jasoz, curriculum-jarduerarekiko printzipioak eta irizpideak ezarriz, balio-aukerak azalduz eta xedeak zehaztuz:

– Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bere egiten dituen hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusiak.

– Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bizi duen egoeraren eta bere inguru sozialaren beharren azterketa eta autoebaluazioa.

– HEOCak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta hurrenkera, euskaltegi zein euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren eta ikasleen beharretara egokituz.

– HEOCa mailaka egokitzeko proposamena, baita maila nahiz azpimaila bakoitzeko aurreikusten den ordu-kopurua ere.

– Hobetsitako aukera metodologikoak.

– Lehenetsitako ikastereduak.

– Ikasmaterialen eta irakasmaterialen proposamena eta hauek aukeratzeko irizpideak.

– Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeko aribideak.

3.– Euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek bost urtetik behin, gutxienez, eguneratu beharko dute curriculum-proiektua, ikasgeletan zein euskaltegietan nahiz euskararen autoikaskuntzarako zentroetan lortzen dituzten emaitzen baitan, prozesu horretan hizkuntzen ikas-irakaskuntzak eta teknologiak izan ditzaketen aurrerabidea euskaltegien nahiz euskararen autoikaskuntzarako zentroyen errealitate eta ikasleen beharretara egokituz.

- AGINDUA, 2020ko irailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautzen dituena, eta euskararikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena.

7. artikulua.- Ebaluazioaren xedea eta ezaugarriak.

1.- Euskalduntzearen helburu nagusia den komunikagaitasunaren ebaluazioa ekintza komunikatiboen bidez balioetsiko da, komunikazio-gaitasunaren baitara biltzen diren gaitasun soziolinguistiko, testual, linguistiko eta estrategikoak balioetsiz. Horretarako ikasleak frogatu egin beharko du gai dela, eskatuko zaizkion testu batzuk ulertzeko eta ekoizteko, baita elkarerreragina eta bitartekaritza eskatzen duten atazak burutzeko ere, eta horiek guztiak HEOCean ezarrita dauden ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eta HABEK euskaltegi bakoitzari onartutako ECPan xedatutako ebaluazio-sistemaren arabera ebaluatuko dira.

5.- Euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek beren curriculum proiektuetan finkatuko dituzte ikasguotako helburuak erdiesteko egoki diren metodoak, jarraibideak, tresnak, ebaluazio-irizpide eta baliabideak eta, hala dagokionean, baita maila bakoitzarentzako kalifikazio-irizpideak ere.

8. artikulua.- Abiapuntuaren ebaluazioa.

1.- Ikastaro bakoitzaren hasieran, euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak hizkuntza-trebetasunen gaineko ebaluazioa egingo dio ikasle bakoitzari, HEOCean ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera eta euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren curriculum proiektuan (ECP) aurreikusitako prozedurekin bat etorriz. Hasierako ebaluazio hori oinarritzat hartuko da ikasle bakoitzari abiapuntua jartzeko, baita haren ikaskuntza-prozesuaren helburuak finkatzeko ere.

9. artikulua.- Aurrerapenaren ebaluazioa.

1.- Ebaluazio honek xede ditu: HEOCaren testuinguruan ikastarorako programatutako helburuak zenbateraino lortu diren egiaztatzea, ikasleari bere ikaskuntza-prozesua hobetzeko orientabide batzuk ematea eta ikasgelaren programazio didaktikoan beharrezkoak diren egokitzapenak egitea.

2.- Aurrerapenaren ebaluazioak heziketa-xedea du eta ikastaroan zehar datu-bilketa sistematikoa egitea eskatzen du.

4.- Euskaltegi-tako edo euskararen autoikaskuntzarako zentroetako irakasleek, zentro horietako bakoitzaren Curriculum Proiektuan ezarritakoarekin bat etorriz egingo dute aurrerapenaren gaineko ebaluazioa: ebaluazio-irizpideak, maiztasuna, metodologia.

5.- Irakasleek, ECP horretan ezarritakoarekin bat etorriz, ikasleen aurrerapenaren gaineko ebaluazioa egingo dute ikastaroan zehar. Horri esker aukera izango dute ikaskuntza-prozesuak egiaztatzeke, irakaskuntza planifikatu eta berrantolatzeke, beharrezko iruditzen zaizkien errefortzu-ekintzak aplikatzeko eta ikasleei beren ikaskuntza-estiloari ondoen egokitzen zaizkien autoebaluazio-aukeren eta estrategien inguruan aholkatzeke.

10. artikulua.- Ikastaro-amaierako ebaluazioa.

1.- Ikastaro-amaierako ebaluazioaren xedea da egiaztatzea ikasleek, matrikulatuta dauden ikastaro bakoitza amaitzen dutenean, zein mailataraino bereganatu dituzten lortu nahi ziren helburuak.

2.- Euskaltegiek, euskaltegien curriculum proiektuetan zehaztuko dute zer baliabide erabiliko dituzten ebaluazio hori burutzeko, eta halaber, horren kalifikaziorako irizpideak finkatuko dituzte.

11. artikulua.- Mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa.

3.- Ikasgu bakoitzeko irakasleek egingo dute ikasleen mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa.

Euskaltegiaren Curriculum Proiektua atalez atal*GOGOETA EGIN (definizioa)*

Gai edo egoera bat arretaz eta xehe-xehe aztertzea, zertarako eta dagokion azterketa bideratu ahal izateko, ondo ulertzeko, iritzia emateko edota erabaki bat hartzeko.

Curriculumak da irakasleen asmoak islatzeko tresna eta ardatz nagusia, xede duena praktika didaktikoa bideratzeko gidalerroak eskaintzea (zer irakatsi, noiz irakatsi, nola irakatsi eta zer-nola-noiz ebaluatu).

Beraz, profesionalak era koherentean lan egin dezaten, beharrezkoa da tresna bat izatea irakasle-taldeak hartu beharreko erabakiak sistematizatuko dituen eta, era berean, argi izatea erabaki horiek eraginkorrak izango direla, baldin eta gogoetaren ondorio badira eta irakasleek beren gain hartzen badituzte.

Hurrengo orrialdeetan, ECParen gaineko gogoeta eskatzen da, errealitatearen gaineko deskribapenetik hasi eta egungo egoeraren analisia egitea, alderdi positiboak eta negatiboak txertatuz, eta aurrera begirako erronkak edota helburuak zerrendatuz, zer egin nahi den eta nola lor daitezkeen helburu horiek zehazteko ahalegina eginez.

Euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren ECPa eguneratzeko, irakurketa-gida honetako atalei jarraitu behar zaie hurrenez hurren.

Errealitatearen gaineko gogoeta eginez eta aurrera begirako erronkak azaleratuz, egoeraren berri izan, ondorioak atera eta aurrerabidea zehazten da. Berebiziko garrantzia du ez mugatzeak soilik ECPa eguneratzeko prozesuaren deskribapen hutsa egitera. ECPa eguneratzeko egin den ahaleginaren hausnarketak berekin bildu behar du zenbaterainoko eragina duen azaleratutako egoerak curriculum-proiektuan eta euskaltegiaren eguneroko jardunean. Izan ere, garrantzizkoa da argi izatea proiektuaren ahuleziak eta indarguneak.

ATARIKOA.- 2023ko ECPa eguneratzeko prozesua

ECPa berritzeko eta eguneratzeko, irakasleek azken bost ikasturteetan izandako esperientzien gaineko gogoetak izan behar du oinarri eta ardatz. Horrela, ziur dakiguna jasoko dugu eta toki egingo zaio zer-nola egin nahi den esparruari; betiere, argi izanda hautaturiko ikuspegi didaktikoa.

Indar handia du aldez aurretik planifikatu eta hausnarturiko jarduera didaktikoak egiten dituen irakasle-taldeak. Bakarka irakasteko dinamikak, aitzitik, eragin eskasa izan ohi du.

Atal honetan, xedea da informazio esanguratsua ematea, errealitateari buruzko gogoeta partekatzea eta aurrerabidea zehaztea.

I. ZER – ERREALITATEAREN DESKRIBAPENA

Atal honetan, 2023ko ECPa eguneratzeko prozesuaren berri emango da.

- 2018an onarturiko ECParen gainean euskaltegiak egindako gogoeta: 2018an txertatu ziren hobekuntzak.
- 2018-2023 bitartean egindako ahalegin kurrikularraren deskribapena.
- 2023an ECPa eguneratzeko arduradunak eta egitekoak: Zuzendaritza, didaktikariak, berariaz sorturiko lantaldeak, irakasleak...
- 2023an ECPa eguneratzeko prozesuan egindako urratsak: urratsa, arduraduna, egitekoa, noiz.
- 2023an ECPa eguneratzeko prozesuan sorturiko hausnarketa-gaiak, egindako galdera nagusiak.
- Ondorio nagusiak.

II. GOGOETA (alderdi positiboak eta negatiboak)

- Azken bost urteotan, ECPa berritzeko eta eguneratzen joateko egindako lanaren gaineko gogoeta.

III. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

- Zer
- Nola

1.- Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bizi duen egoeraren eta bere inguru sozialaren beharren azterketa eta autoebaluazioa

Atal honek curriculum-proiektua zer erakundetan eta zer testuingurutan kokatzen den irudikatzen lagunduko du, eta, ondorioz, hartzaileekiko lan-proposamen esanguratsuak bideratzea ahalbidetuko.

Atal honetan, xedea ez da azterketa soziologiko, sozioekonomiko edota soziolinguistiko landu eta sakona burutzea, baizik eta errealitateari buruzko gogoeta egin eta aurrerabidea zehaztea, ahal den neurrian; besteak beste, garrantzikoa da inguruak eskaintzen dituen gizarte-erabilerak kontuan izatea, ikas-irakas prozesuetan erabilera horiek kontuan izateko.

I. ZER – ERREALITATEAREN DESKRIBAPENA

- **Euskaltegiaren kokapena eta deskripzioa:** titulartasuna, kokapena, ikas- eta irakas-eremuak (egoitza, ikasgelak, gela desplazatuak...), zerbitzuak (liburutegia, informatika-gela...), euskaltegiaren egitura eta antolaketa akademikoa (organigrama, koordinazioa).
- **Irakasleriaren profila:** kopurua, adina, ikasketa akademikoak, euskara-maila, prestakuntza didaktikoa, ezagutza teknologikoa, behin-behinekotasuna...
- **Irakasleen prestakuntza**
 - Irakasleen prestakuntza-beharrak.
 - Irakasleen prestakuntza-beharrei erantzuteko irizpideak eta estrategiak (ikastaroak, irakasleen arteko behaketa esanguratsuak, bideo-grabazioak eta gogoeta-saioak...).
- **Ikasleen ezaugarriak:** adina, jatorria, ikasketak, langabezia, behar komunikatibo nagusiak, interesa, motibazioa...
- **Testuinguruaren alderdi soziolinguistikoak:** euskaren ezagutza- eta erabilera-mailak; ikasleen profila derrigorrezko hezkuntza uztean...
- **Eskaera eta eskaintza akademikoa:** eskaera eta eskaintza (mailak, azpimailak, ordutegiak, moduluak, ikastereduak...), taldekatzeko/mailakatzeko irizpideak.
- **Elkarte eta erakundeekin elkarlana:** proiektuak, erabilera-aukerak, kanpo-ekintzak...
- **Genero-ikuspegia:**
 - Lantalde, batzorde edo eskolak antolatzean.
 - Komunikazioa, irudia, euskarriak.
 - Kontziliazioa.

II. GOGOETA (alderdi positiboak eta negatiboak)

- Irakasleriaren bilakaera azken bost urteotan.
- Irakasleen prestakuntza: bilakaera azken bost urteotan.
- Ikasleen ezaugarriak: bilakaera azken bost urtean.
- Inguruneak eskaintzen dituen gizarte-erabilerak eta ikas-irakas prozesuak: bilakaera azken bost urteotan.
- Genero-ikuspegia.
- ...

III. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

- Zer
- Nola

2.- Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bere egiten dituen hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusiak

HEOCean ezarritako gidalerroetan oinarrituta, euskaltegiak zehaztu behar du zein den hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruz duen ikuspegia; alegia, horren gaineko usteak eta irudipenak zedarritzea eskatzen zaio, gerora eguneroko ikas-jardunaren printzipio nagusi izan daitezen.

Curriculumean elkarri eragiten dieten aldagai ugari daude, eta euskara-irakasleak argi izan behar ditu ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusiak, baldin eta eraginkor aritu nahi badu. Ezarritako helburuak lortzeko, material didaktiko egokiak prestatzeko edota jardun didaktikoaren ebaluazioa gauzatzeko, ezinbestekoa da irakasleak oinarritzko ezagutza didaktikoa izatea eta estrategia egokiak baliatzea.

Atal honetan, xedea da informazio esanguratsua ematea, errealitateari buruzko gogoeta partekatzea eta aurrerabidea zehaztea.

I. ZER – ERREALITATEAREN DESKRIBAPENA

- **Hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusi batzuk.** Esaterako:
 - Gaitasun komunikatiboa
 - Ekintzara bideratutako ikuspegia
 - Konstruktibismoa
 - Elkarreragin soziodiskurtsiboa
 - Ikasle autonomo eta estrategikoa
 - Hizkuntzaren gizarte-erabilera
 - Aldagai estralinguistikoak (usteak, motibazioak...)
 - Euskararen ezaugarri eta egoera soziolinguistikoa
 - ...

II. GOGOETA (alderdi positiboak eta negatiboak)

- Hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusien bilakaera azken bost urteotan.

III. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

- Zer
- Nola

3.- HEOCak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta hurrenkera, euskaltegi zein euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren eta ikasleen beharretara egokituz

Komunikatzeko gaitasun jakin batzuk lortzearren, HEOCak zenbait ekintza komunikatibo zehazten ditu, maila bakoitzari dagozkion testuinguruetan. Curriculumak helburu du ekintza komunikatibo horiek, elkarreraginean, elkarri loturik lantzeko aukera eskaintzea. Helburu zehatzak izateak bete-bete eragiten du ikas-irakas prozesuetan. Izan ere, kontrol-zerrenda da HEOCak eskaintzen duen egitura, mailaz maila ikasleek zer egin dezaketen eta ongi moldatzeko zertarako gai izan beharko luketen azaltzeko.

Atal honetan, xedea da informazio esanguratsua ematea, errealitateari buruzko gogoeta partekatzea eta aurrerabidea zehaztea.

I. ZER – ERREALITATEAREN DESKRIBAPENA

HEOCak ezartzen dituen helburu eta edukietatik zer aukera egiten duen euskaltegiak, eta nola egokitzen diren ikasleen beharretara azaltzeko eskatzen da. Era berean, HEOCean zedarritutako gaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-prozesuak arautzeko 2020ko irailaren 9ko Aginduaren IV. kapitulua oinarri, baita ikasleen behar bereziei erantzuteko egokitzapenen ezaugarriak zehazteko ere.

- **Helburuak**
 - Helburu-mapa: mailaz mailako helburu zehatzen egokitzapena.
 - Helburu bakoitzari dagokion azken egitekoa.
- **Edukiak**
 - Azken egitekoei begirako edukien egokitzapenak.
 - Hautaketa-irizpideak eta hurrenkerak.
- **Desgaitasunak**
 - Desgaitasunen bat duten edo eta zailtasunak dituzten ikasleen beharrei erantzuteko egokitzapenen zehaztapenak.

II. GOGOETA (alderdi positiboak eta negatiboak)

- HEOCak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta hurrenkera dela-eta, euskaltegiak zer aukera egiten duen eta ikasleen beharretara egokitzeko prozesuen bilakaera azken bost urteotan.

III. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

- Zer
- Nola

4.- HEOCa mailaka egokitzeko proposamena, baita maila nahiz azpimaila bakoitzeko aurreikusten den ordu-kopurua ere

Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentrozen irakas-jarduera, oro har, HEOCean zedarritutako komunikagaitasun-mailaren bat eskuratzera bideratua egon ohi da; eta iraupen eta trinkotasun desberdineko ikastaro-eskaintza malguaren bitartez antolatzen da, gizarte-behar ezberdinei erantzuteko.

Era berean, euskaltegiek xede bereziko ikastaroak ere antolatu ditzakete, betiere euskara biziberritzeko onartutako plangintza batean txertatuta badaude. (2015eko uztailaren 22ko Agindua)

Atal honetan, xedea da informazio esanguratsua ematea, errealitateari buruzko gogoeta partekatzea eta aurrerabidea zehaztea.

I. ZER – ERREALITATEAREN DESKRIBAPENA

HEOCak zehazten dituen komunikagaitasun-mailak egokitzean zer aukera egiten duen euskaltegiak eta nola egokitzen diren ikasleen beharretara. Eskaera/eskaintza erlazioaren arabera, era batera ala bestera egituratuko du erakundeak euskalduntze-prozesua.

- **Egituraketa:** mailak, azpimailak, moduluak, ikastaroak...
- **Egituraketa-irizpideak**
- **Zehaztutako egituraketaren arabera aurreikusitako ordu-kopurua:** maila, azpimaila, moduluak, ikastaroak...

II. GOGOETA (alderdi positiboak eta negatiboak)

- HEOCak zehazten dituen mailak egokitzean, euskaltegiak izan duen bilakaera azken bost urteotan.

III. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

- Zer
- Nola

5.- Hobetsitako aukera metodologikoak

Metodologian, aurrez egindako plangintzaren emaitza gisa hartu ohi dira kontuan irakasleak eta ikasleek burutu dituzten jarduera didaktiko guztiak. Eta metodo bakoitzak nahiz ikuspegi bakoitzak metodologia jakin bat du, elkarren segidan dauden faseetan egituratzen dena. Ez dago metodo bat bera ere ikas-irakas prozesuaren helburuak lortzeko ideala denik, eguneroko eskoletan irakasleak mementoko egoerei erantzun behar dielako eta, horretaz gain, irakasleak egindako hautuak ikasleen beharretara egokitu eta ezagutzaren eraiketa ahalbidetu beharko duelako.

